

xinple!

EUSKARA



AGOIZKO UDALA

23. zenb. 2021eko azaroa

ZERBITZUAK

- Udaletxea 948 33 60 05
- Euskara Zerbitzua 948 33 65 65
- Kultur Etxea 948 33 66 90
- Cederna Garalur 948 33 63 37
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzua 948 33 40 95
- Liburutegia 948 33 64 53
- San Migel Ikastetxea eta Institutua 948 33 63 09
- Bisitaldi gidatua Elizara 637 44 81 07
- Dya 948 33 60 65
- Suhiltzaile Boluntarioak 948 33 65 00
- Udal Pilotalekua 948 33 61 64
- Kirol Gunea 948 33 67 06



AURKIBIDEA

3. 2020KO KONTUAK ITXI DIRA
4. UDAL GOBERNUAK ORAINGO LEGEGINTZALDIKO 2 URTEEN BALANTZEA EGIN DU UDALAK "HORRELAKO AGOITZ NAHI DUZU?" KANPAINA ABIATU DU
5. ITOIZKO URTEGIARENGATIKO KONPENTSAZIOAK EBALUATZEKO BATZORDEA ERATU DA PLAKA FOTOVOLTAIKAK, KANPONDOAN
6. KULTUR ETXE "BERRIA" AGOIZKO DBHI-KO ESTALPEA EGITEKO OBRAK HASI DIRA AUTOBUSEN ORDUTEGIA BERRITU DA
7. AGOITZ, BIHOTZA ETA MEMORIA INDUSKETA LANAK HASI DIRA ZALURRIBARKO SAN SALBATORE MONASTEGIAN
8. AGOITZEN AURKEZTU DA BIOMASA ZENTROA BIOERREGAIEN LABORATEGIA, AGOITZEN
9. INDUSTRIALDEA BERPIZTEKO PROPOSAMENAK ENERGIA JASANGARRIRAKO EKINTZA PLANAK PRESTATZEN HASI DIRA NAFARROAN BIODIBERTSITATEAREN ALDE
10. EMAKUMEEN AURKAKO BORTIZKERIAREN KONTRA ARITZEKO PROTOKOLOA "BORTXAKETAREN KULTURA"-RI BURUZKO TAILERRA LGTBI KOLEKTIBOAREN ESKUBIDEEN ALDE
11. PALESTINARI BURUZKO AGERPEN INSTITUZIONALAK KOLONBIKO ERREPRESIOA DELA ETA LAGUNTZA JARDUNALDIAK: HEZKUNTZA EMOZIONALARI BURUZKO EKIMENA
12. ITZIAR GÓMEZEK IRATI MANKOMUNITATEA BISITATU ZUEN BIRZIKLAPENAREN LEHIAKETAK BADU SARIA JASANGARRITASUNAREN II. AZOKA OSPATU DA
13. LEHEN ZOKOAK ARRAKASTA ITZELA ISAN ZUEN BI KINTAKOENTZAKO ZAPIAK
14. KULTUR BALANTZEA
15. "KALEKO KULTURAREN KOLOREAK" BALANTZEA EUSKARAREN ASTEA ARRAKASTAZ BURUTU DA
16. EUSKARAREN ETXEAREN INAUGURAZIOA: AEKREN EUSKALTEGIA - ERA ETA GAZTE TXOKOAK ERA TXOKOA ETA GAZTE TXOKOA SORTU DIRA
17. KANPONDOAREN KIROL PROGRAMA HASI DA KOSTRADAREN XXII. LASTERKETA MEREZITAKO, GAZTEEN LEHEN MAILARAKO IGOERA
18. FORU KOMUNITATEKO ERREMONTA TXAPELKETA, AGOITZEN ERE UTERGA-OTANO, FORU KOMUNITATEKO ERREMONTA TXAPELDUNAK «LA INDURÁIN» LASTERKETAK BERRIZ ERE AGOITZ IGARO ZUEN



Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotziek osatzen dute eta udal teknikarien eta garapenerako agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.

2020KO KONTUAK ITXI DIRA

Joan den ekainaren 3an, Agoizko Udalak osoko bilkuran onartu zuen 2020ko ekitaldi ekonomikoari dagokion kontu-itxiera, Kanpondoa sozietate publikoaren eta Mariano García Musika Eskolaren Patronatuaren zenbakiak ere, udal entitateak diren aldetik, barne hartzen dituen.

Azken urteetan ez bezala, iazko ekitaldiko balantzeak, diru-sarreraren eta gastuen balantzeari dagokionez, 62.217,78 euroko saldo negatiboa utzi digu, eta zenbaki horrek badu azalpena.

Datu negatiboak badira ere, udala ez da ezkor agertzen 2011tik honako bilakaera ekonomikoari dagokionez; izan ere, kopuru hori ulertzen da kontuan hartzen badugu aurreko ekitaldian argi berriak ordaintzeko mailegua (10 urteko epean, interesik gabe, itzuli beharrek) jaso genuela eta ekitaldi honetan amortizatzen ari garela. Hala ere, kontuz ibili behar dugu, tokiko egoera ekonomikoa ez baita ona.

2020ko ekitaldian, 2.669.863,46 euroko eskubide aitortu garbiak (diru-sarrerak) izan dira, 2019ko ekitaldian baino 686.206,82 euro gutxiago, eta 2.732.081,24 euroko betebeharrak aitortu garbiak (gastuak), alegia, aurreko urtean baino 240.961,69 euro gutxiago. Egoera berri horrek zergatia COVID-19ren eragina izan da. Udalak festa eta kultur ekitaldien gastuak murriztu ditu; baina, ordea, gastu finkoak mantendu behar izan ditu, diru-sarrerik izan gabe ezin orekatu izan direnak. Bi adibide jartzearen, Musika Eskolarako 34.000 euroko ekarpena egitea aurrikusita zegoen; baina, azkenean, 84.739,03 euroko gastua izan da (diru-sarrerarik ez da izan, baina gastu berberak izan ditu); eta udalak 293.230,62 eu-

roko ekarpena egin dio Kanpondoa sozietate publikoari.

DIRUZAINZTA OROKORRA

Baina aurreko ekitaldiak ere datu positibo bat utzi digu: diruzaintzako gerakinak 270.154,74 euro murriztu du bere zifra negatiboa. Aurreko urtearen itxieran, gure diruzaintzako gerakina -417.066,23 eurokoa zen, eta azken itxierakoa -146.911,49 eurokoa. Zifra negatiboa bada ere, gure zorra ia 300.000 euro murriztea lortu dugu, eta datu horrek 2020ko ekitaldiaren itxiera negatiboaren arrazoia da.

EPE LABURERAKO HELBURUA



Aurreko bi legegintzaldietan lan handia egin da gastua eta zorra murrizteko ekintzen eta ekimenen bidez, eta zaila izan da gastua gehiago doitzea. Hala ere, gastu energetikoa murrizteko proiektuak egiten jarraitzen dugu

(Kanpondoan eguzki-panelak, adibidez). Hala ere, gastuari are gehiago eusteko zailtasunak direla eta, ekonomiaren hobekuntza horretan urrats bat gehiago emateko gaitasuna dugu.

Urte hauetan azaldu ditugun arrazoiak direla-eta (eskualdeko burua, Itoiz-Nafarroako ubidea...), Nafarroako Gobernuak ekarpen ekonomikoa handitzea da gure borrokaren ardatza. Ildo horretan urratsak ematen ari dira, duela gutxi inguru horretako lan-mahaia sortu baita, Itoiz- Nafarroako ubideari dagokionez.

Udal honek Agoitzen egoera ekonomikoa hobetzeko gogor lan egiteko konpromisoari eusten dio, eta gure esku dauden ekintza guztiak egiten ditugu Nafarroako Gobernuaren aldetik finantzaketa hobea lortzeko, eta, aldi berean, azken urteetako euste-ildoari eutsiko diogu.

ZOR BIZIAREN ETA DIRUZAINZTAKO GERAKINAREN BILAKAERA



UDAL GOBERNUAK ORAINGO LEGEGINTZALDIKO 2 URTEEN BALANTZEA EGIN DU

2019ko maiatzean, Agoizko udal taldea lanean hasi zenean, inork ez zuen susmatzen lan egiteko pretatutako gidioak norabide aldaketa izugarria izanen zuela eta edozein asmo aldatzera behartuta egonen zirela. Hala eta guztiz ere, legegintzaldiko bi urte hauetako balantzea oso positiboa izan da, eta hainbat proiektu gauzatu ahal izan dira.

Hala gelditu zen agerian joan den irailaren 24an Kultur Etxean egin zen herrikoei zabalduko batzarrean. Udal gobernu taldeak antolatutako ekitaldi horretan zehaztasunez azaldu ziren orain arte egindako proiektuak eta datozen bi urteetan udal arlo bakoitzean landu beharreko ideiak plazaratu ziren. Gainera, deialdia baliatu zen azken bi urteetako ekitaldi ekonomikoetako eta udaleko egoera ekonomikoaren balorazioa egiteko. Pixkanaka zenbakiak hobetzen ari dira.

Bilkuraren hasieran, alkateak bi urte horietan barnako ibilbidea egin zuen: ikuspegi oroko-

rra eman zuen, orain arte egindako jarduketak garrantzitsuenak azaldu zituen eta baita Udalak legegintzaldi honetan egin asmo duenaren ideiak ere. Ondoren, udal taldeko kideek hartu zuten hitza, eta hautetsi bakoitzak bere arloan egindako proiektuak zehaztu zituen. Udal taldearen ekintzak jasotzen zituzten hainbat irudiren proiektuak lagunduta eman zituzten azalpenak.

Udalak aitortu zuen oso garai gogorrak izan zirela Covid 19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta horrek hasiera planak erabat aldatu zituela. Baina, hala ere, txertoek tune-laren amaiera ikustea ahalbidetu dute. Hilabete hauetan zehar egoera zailak bizi izan dira eta udal gobernuak lanean jarraitu du herritar guztien bizitza hobetzeko.



UDALAK "HORRELAKO AGOITZ NAHI DUZU?" KANPAINA ABIATU DU

Herritarrek kontzientziatzeko eta herria zaintzea guztioi dagokigula ohartarazteko, 2017ko otsailean, Agoizko Udalak, Irati Mankomunitatearekin lankidetzan, "Zaindu Agoitz, zure etxea da" kanpaina abiarazi zuen, 5 konpromiso biltzen zituen: zirkulazio-arauak errespetatzea, zakarrontziak eta edukiontzia erabiltzea, bolumen handikoak kalera ez ateratzea (Mankomunitatera deitza: 948 33 62 17), txakurren gorotzak jasotzea eta animaliei jaten ez ematea.



Orain, gizalegearen aurkako jokabideak prebenitze aldera (udan areagotu egiten dira jokabide horiek) eta kanpaina hura indartze aldera, udalak mezuari heldu dio berriro, eta bideo bat ekoiztu du, agoizkoei "denok gara Agoitz" adierazteko. Haren bidez auzokideei bertan agertzen diren egoerak herrirako nahi

dituztenetz hausnartzeko gonbitea luzatu zaie. Oraingoan, "Horrelako Agoitz nahi duzu?" leloa da kanpainaren ardatza, eta udako hilabete hauetan abiatu arren, urteko egun guztietan indarrean egonen da.

Bideoaren irudi eta musika zirrargarriak dira, Agoitz zikin, zaratatsu eta errespetugabea erakusten duelako. Adin desberdinetako sei pertsona dira kanpainaren protagonistak. Aurpegi serioak, giro eta estetika goibela, kristalak, arrautzak, pintadak, tamaina handiko objektuak, txakurren gorotziak, zarak... hori guztia erabili da mezua helarazteko. Bideoa "zaindu Agoitz, zure etxea da" mezuekin amaitzen da, lau hizkuntzatan. gaztelaniaz, euskaraz, errumanieraz eta arabieraz, herrian bizi diren herritar guztiengana ailegatzeko.

ITOIZKO URTEGIARENGATIKO KONPENTSASIOAK EBALUATZEKO BATZORDEA ERATU DA

Joan den ekainaren 14an, lehen aldiz elkartu zen Nafarroako Gobernuak eraturako batzordea, balizko inbertsio eta proiektu posibleak aztertzeko, bai eta mekanismo egonkor bat egituratzeko aukera aztertzeko ere, Itoizko urtegiak kaltetutako lau herrietan eragiten duen lurralde-inpaktua konpentsatzeko. Lantalde horretan, Nafarroako Gobernuaz gain, kaltetutako lau udalak (Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Betelu-) eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (CHE) daude. Nafarroako Jauregian egindako saio batean, José M^a Aierdi Foru Gobernuako presidenteorde eta Lurralde Antolamenduko departamentu-buruak eta Lurralde Kohesio kontseilari Bernardo Ciriak, Ruben Goñi eta Jesús M^a Rodríguez Proiektu Estrategikoetako eta Toki Administrazio zuzendari nagusiekin batera, lan batzordea-

ren hasierako lanak azaldu zizkieten Ángel Martín Unzué Agoizko alkateari, Carlos Oroz Artzibarkoari, Roberto Zazpe Longidakoari eta Javier Larrea Orotz-Betelukoari, eta haien proposamenak jasotzeko prest zeudela jakinarazi zieten. Bilkuran Marcelo Merino CHEko ordezkariak ere parte hartu zuen.

Gogoratu behar da, duela hilabete batzuk, herri horietako alkateek Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen araudia aldatzeko proposamen bat aurkeztu ziotela Nafarroako Gobernuari, Toki Ogasunen Funtzaren bidez konpentsazio kanon bat egituratu zedin eragindako udalentsat. Udaletara modu ez finalistan iritsiko zen dirua (helmuga aukeratzeko aukera izanik), Itoiztik Nafarroako Ubidetik ateratzen den ur-bolumenari lotua.

Nolanahi ere, Aierdi eta Ciriza kontseilariak Itoizko inguruko alkateei aurreratu zieten, Nafarroako Gobernuak konpentsazio mekanismoak antolatze eta egonkortasuna emateko formulak elkarrekin lantzeko konpromisoa hartu zuen Foru Gobernuak, eta, berehala, lau udalherri horietan garapen jasangarriko proiektu zehatzak aztertu eta planifikatzeko konpromisoa hartu zuten.

Aldeek hurrengo bilera irailean egiteko hitzordua adostu eta udan lanean jarraitzeko konpromisoa hartu zuten. Alkateek adierazi dutenez, oraingo euren proposamena baino ez dago mahai gainean, eta akordioak lortzeko beste formula batzuk aztertzeko prest daudela azpimarratu zuten. Hori bai, batzordearen lana bizkorra izatea eskatzen dute, 2021ean zonaldeko eskaria bete dadin.

Itoizko urtegia eraikitzeak eragindako lurralde-kargak eragindako udalei konpentsazioa emateko ekimen hori Nafarroako Gobernuak gaintu gabeko gaia da, 2011. urtean xede horretarako eraturako Itoiz Fundazioa desegin zenetik. Fundazio horren garapen planean aurreikusitako 28 milioi euroko inbertsioen (zenbaiten urtetan zehar) % 60 gauzatu zuen. 2014an, Agoizko, Artzibarko, Orotz-Beteluko eta Longidako alkateek agerraldia egin zuten Parlamentuan, hartutako konpromisoak bete zitezela eskatzeko, eta «solidaritate-mekanismo» bat ezartzeko eskatu zuten, Itoizko urtegia eraikitzeak zonaldean izan duen inpaktuagatik.



PLAKA FOTOVOLTAIKAK, KANPONDOAN

Duela gutxi, Kanpandoa kirol-guneko eraikina- ren estalkian energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko planta bat jarri da, udal-instalazio horien autokontsumorako. Udalak egindako proiektu honek 110 plaka fotovoltaiko ditu, kirol-gunearen teilatua estaltzen dutenak, eta instalazioek elektrizitatearen arloan gaur egun egiten duten gastuaren kostu ekonomiko handia gutxitzeko balioko du.

Era berean, energia berriztagarrien kontsumoaren bidez, klima-aldaketa ondorioak galaraziko da, berotegi-efektuko gasen isurketa modu eraginkorrean murriztuz. Hori da Agoizko Tokiko Agenda 21en lehentasunezko helburuetako bat. Duela gutxi berriro da, eta klima-aldaketaren inpaktua prebenitzea eta murriztea du helburuetako bat, planeta jasangarriagoa lortzeko.

TELMAN S.L. enpresa esleipenduna arduratu da proiektu hau gauzatzeaz, eta kostua 32.348,67 eurokoa izan da, BEZ kanpo.



KULTUR ETXE "BERRIA"

Agoizko Kultur Etxea, Carmelo Astráin, Julián Galar eta José M^o Gutierrezen proiektu arkitektonikoa, 2004. urtean inauguratu zen. Hurrezker, zurezko estalkiak, bai eraikinaren fatxada nagusikoa (Irigoien kalera ematen duena), bai goiko kubokoa, nahiko narriatu dira, etengabe eta zuzenean jasaten dituelako eguraldiaren gorabeherak.

Agoizko Udalarentzat lehentasunezko zen Kultur Etxeko estalkiaren obrak egitea. Jatorrizko zura oso gaizki zegoenez, premiazko jarduketa behar zen, eta maia-tzean eraberritzeari ekin

ziona, eta eraikinaren ingurutzaila osoa ordezkatu zen. Agoizko Construcciones Leache SL enpresa arduratu da estalkia zaharberritzeko proiektua gauzatzeaz, eta kostua 34.763,38 eurokoa izan da, BEZ kanpo. Higitutako ohol batzuk lixatu eta berniza emanda berreskuratu ahal izan dira; baina, beste batzuk, ordea, aldatu behar izan dira. Bidean, fatxada nagusian hobekuntza txikiak egin dira, eta azken emaitza ikusgarria izan da.

Gainera, azken hilabeteetan hainbat obra txiki egin dira eraikinaren barruan: oholtzaren zo-



rua pintatzea, kamerinoak, erabilera anitzeko aretoa, korridoreak eta erakusketa-aretoen sarrera. Beirate handi bat hartzen duen binilo apaingarri bat ere jarri da, erakusketa-espazioetarako sarbidea ematen duen atean, hain zuzen ere. Badaude nabarmendu beharreko beste hobekuntza batzuk ere: auditoriumeko soinu-ekipo ingurutzaila martxan jarri da eta Led fokuak erosi dira. Horiek kalitatean jautzia suposatu dute, eta horretaz disfrutatu ahal izanen dute Kultur Etxean programatutako ikuskizunetara joaten diren guztiak.

AGOIZKO DBHI-KO ESTALPEA EGITEKO OBRAK HASI DIRA

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak 300 ikasle inguru hartuko dituen Agoizko DBHI berriko eskola-patioko kirol-pista estaltzeko obrak lizitatu ditu. Hain zuzen ere, azpiegitura horrek egungo San Migel ikastetxearen eta ondoko kiroldegaren arteko eremua babestuko du, eta ikastetxeko zein institutuko ikasleei eguraldi txarreko egunetan babesa emateko eta kirola egiten laguntzeko balio du.

Proiektu horrek, gehienez, 367480,93 euroko gastua izanen du eta 3 hilabeteko egikaritze-epea. Aurreikusten da estalki horretako obrak amaituta egotea institutu berria martxan jarri aurretik, urte amaieran.



AUTOBUSEN ORDUTEGIA BERRITU DA

Uztailaren 1etik, ALSA enpresak kudeatzen duen autobus zerbitzuak, Agoitz eta Iruñea arteko linea hartzen duenak, ordutegi berria du hiriburura joateko.

tuta: Agoitzetik Iruñera 09:00etan, 10:20etan, 12:00etan eta 15:40etan dira zerbitzuak, eta Iruñetik Agoitzerako bidea egiteko, berriz, 11:00etan, 13:00etan, 14:30etan eta 19:10etan.

Horrela, astelehenerdik ostiralera, lau dira joateko eta itzultzeko aukerak, honela bana-

Larunbatean Iruñera joateko zerbitzua 10:20etan da. Itzulerako bidea, 14:30etan.

AOIZ/AGOITZ	PAMPLONA/IRUÑEA
09:00	11:00
10:20	13:00
12:00	14:30
15:40	19:15
10:20	14:30
PAMPLONA/IRUÑEA	AOIZ/AGOITZ

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

LARUNBATA

AGOITZ, BIHOTZA ETA MEMORIA

Agoizko herritarrek Memoriaren Parkera itzuli ziren, 1936ko irailaren 18an, Eloko Teilerian fusilatu zituzten 11 agoizko haiek gogoratzeko. Egun batzuk geroago, Longida bailarako beste 16 bizilagunek bukaera bera izan zuten. Guztira 27 hildako izan ziren, eta urtero monolitoaren ondoan egiten duen hitzorduan aipatzen eta gogoratzen ditu, 1936ko kolpe faxistaren ondoren errepresaliatutako pertsona guztiak aitortzearekin batera.

Angel Martin Unzue alkateak, gaztelaniaz, eta Joseba Corera Kultur zinegotziak, euskaraz, gogoratu zuten hori irakurri zuten agerpean. «Beren etxeetatik erauzi zituzten, soilik desberdin pentsatzeatik, askatasunarekin, justiziarekin eta berdintasunarekin, herrialde laikoaren alde egitearekin, alegia, benetako demokraziarekin konprometitutako pertsonak izateagatik. Baina dena erori zen faxista batzuen zentzugabekeriagatik, armak, tiroak, heriotza, umiliazioa eta beldurra inposatu baitzituzten» zioen idatziak.

Komunikatuan gogora ekarri zen hildako horien familien eta, batez ere, beraien alargunen (galtzaila nagusiak) izua eta jazarpina. Aldi berean, istorio izugarri honen irabazle handienak izan zirela adierazi zuten, duintasunez bizi ahal izan zirelako, familia bakarrik aurrera ateratzeko gai izan zirelako eta ondorengoei gorrotoan oinarrituta ez zeuden balioak transmititzeko gaitasuna izan zutelako. Idatzian Errepublikaren alde zeuden eta mota orotako errepresioa (desjabetzeak, erbesteratzea) jasan zuten pertsona guztiak omentzeko tartea utzi zen.

INDUSKETA LANAK HASI DIRA ZALURRIBARKO SAN SALBATORE MONASTEGIAN

Irailaren 11 eta 12ko asteburuan, 60 boluntario inguruk parte hartu zuten Zalurrribarko San Salbatore monastegiko lehen esku-hartzean. Ekimena HIDEA Agoizko Historia Kultur Elkartetik abiatu zen. Iaz, Agoizko historia- eta ondare-zale lagun talde batek osatu zuen elkarte, geroztik arlo horretan Udalarekin elkarlanean aritzen direnak. Lehenengo fase honetan, aztarnategia garbitu, egonkortu eta mugatu zen, eta eraikinaren hormak aurkitu ziren. Urriaren beste interbentzio bat egingen da, zenbait lagin irekitzeko eta estratigrafia dokumentatzeko.

Monastegi zaharraren hondakinetak eskuhartzeko arkeologiko hori Udalak eta Cederna-Garalurrek Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinatutako akordio bati esker egin ahal izan da. HIDEAK, dituen proiektu guztien artean,



Udalak frankismoaren errepresioaren biktimekiko eta haien familiekiko konpromisoa berretsi zuen. «Zuen esanetara gaituzue eta eskua luzatzen dizuegu. Gaur omentzen ditugun pertsonen oroimena bizirik egonen da beti gure bihotzetan eta behar den guztietan ohoratua izanen da», adierazi zuten.

Agoitz, bihotza eta memoria, batu ziren ekitaldian. Eta horri Simplex taldeak abesti hunkigarriak erantsi zizkion. Bukaera emateko, omeneko aureskua eta lore zuriak eta trikoloreak monolitoaren aurrean.

MEMORIAREN ZIKLOA. 1936ko estatu-kolpe faxistaren 85. urteurrenean, Agoizko Udalak Memoriaren Ziklo zabal bat antolatu zuen iraillean, fusilatuei eta frankismoaren errepresioa jasan zuten herriko eta inguruko herrietako pertsona guztiei urtero errekonozimendua eta omenaldia egiteko. Udalak diseinatutako ekitaldien programa «José Alfaro: erbesteratzea eta duintasuna» argazki erakusketarekin

hasi zen. Argazkilaria tafallar errepublikar polifazetikoak 1936tik 1946ra bitartean Frantziara erbesteratua egon zen bitartean hartutako irudiak oinarri hartuta egindako erakusketa da. Erakusketa, Nafarroako Memoriaren Institutuak antolatutakoa, Atxu Ayerra Alfaro argazkilaria (José Alfaren bilobak) aurkeztu zuten. Berak ere ondorengo bisitaldia gidatu zuen. Programak «Nafarroa: erbesteratze goiztiarra, oroipen berantziarra» hitzaldiarekin jarraitu zuen, Josu Chueca EHUKo Historia Garaikideko irakaslearen eskutik. Horrez gain, Mikel Huartek «Gorriak» liburuaren aurkezpena egin zuen. Obraren gaia, Osasunaren ezkutuko historia: futbola, politika eta errepresioa. Programa, memoriaren historia letra larriz jasotzen duen «Vencidos» antzeztanarekin osatu zen. Besteei eman zieten emakumeak, erbesteratze, estraperloan, gosean, emigrazioan... familiak aurrera atera behar izan zituztenak.

Gerra Zibilaren kontakizun krudel eta mingarriak.

Agoizko ermiten lana eta ikerketa lehenetsi ditu. Orain arte zortzi kaperak txiki antzeman



ditu elkarteak herriko inguruan, baina San Salbatore, mendeetan zehar dokumentu-erreferentzia ugari dituen (lehen aipamenak XI. mendearen erdialdekoak dira), garrantzitsuena da.

Bai HIDEAK bai Agoizko Udalak (lehen fase hau 3.000 euroekin finantzatu du) uste dute, ermitak duen ondare eta sentimenduzko balioa dela eta, bertan jardutako beharko litzatekeela, historia handia duen monastegia berreskuratu eta sendotzeko: mendeetan zehar izan zuen aktibitatea, Frantziako tropek Independentzia Gerran (1808-1814) suntsitu zuten arte.

Udalak eskerrak eman dizkio HIDEARI egindako lan altruistagatik, eta Agoizko ondarea ikertzen eta sustatzen jarraitzea animatu du, horrela denok irabaziko dugulako.

AGOITZEN AURKEZTU DA BIOMASA ZENTROA

Nafarroako Gobernuak trantsizio energetikoaren arloko ekimen publiko berritzaileentako bat burutu du: Agoitzen baso-biomasa eraldatzeko eta hornitzeko zentro pilotu baten sorrera. Zentro horren helburua da energia berde hori arian-arian ezartzea bizitegi-parke publiko zein pribatuetan, jasangarriagoak izan daitezzen.

Nasuvinsak garatu du ekimena Lursarea Lurralde eta Jasangarritasunaren Agentziaren bitartez, Promobiomasse proiektu europarraren esparruan. Proiektu horrek, 2018tik, biomasaren tokiko eskaintza eta eskaria ku-

deatzeko eredu bat bultzatzeko lan egin du, baita gure basoetatik datorren energia garbi hori ekoizteko eta merkaturatzeko sektorea garatzeko ere.

Aierdi lehendakariordeaz gain, ekitaldian izan ziren Angel Martín Unzué Agoizko alkatea, Alberto Bayona Nasuvinsako zuzendari kudeatzailea, Rubén Goñi Foru Gobernuako Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusia eta biomasari lotutako sektore publiko eta pribatuko ordezkariak eta Promobiomassen parte hartu duten eskualde bazkide eta elkartue-takoak.



Biomasa zentro berri hori 2022an hasiko da lanean, eta urtero 900 tona ezpal ekoiztea aurreikusten da, Nasuvinsak sustatzen duen Nafarroako Gobernuaren Navarra Social Housing 'alokairu planeko 524 etxebizitza babestuek hornitzeko.

Antzina Solano enpresarena izandako pabilioi batean dago, 3.302 m²-ko azalera hartzen du, eta 1.996 m² estalita egonen dira; gainerakoa, berriz, materiala biltzeko zelai estali gabe geratu da. Zurak zigilua izanen du: modu jasangarrian, Nafarroako baso eremu gehienetan bezala, kudeatutako basoetatik ateratakoa.



BIOERREGAIEN LABORATEGIA, AGOITZEN

Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalak (CENER) sustatutako Bioerregai Aurreratuen Garapenerako Laborategiaren proiektuak jardura ekonomiko berritzailea sortuko du Agoitzen, bai eta lanpostu iraunkorrak, egonkorak eta kualifikazio handikoak ere. Hala adierazi zuen Mikel Irujo Ekonomia eta Enpresa Garapenerako kontseilariak. Juan Cruz Cigudosa Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa digitaleko kontseilariarekin batera aurkeztu zuen laborategia CENERek Agoitzen duen lantegian. Agoizko alkateak, Ángel Martín Unzué, harrera egin ondoren, instalazioak bisitatu zituzten.

Proiektu honen helburua bioerregai aurreratuak ekoizteko teknologia garatzea da, jatorrian diesel, keroseno eta itsas motakoak, baso-hondakinetatik eta tokiko nekazaritza-hondakinetatik abiatuta. REACT-EU funtsen finantzaketa 7,6 milioi eurokoa izanen da 2021-2023 aldian; horietatik 5,055 milioi Agoitzen inbertitzeko eta 11 pertsona kontratatuzko izanen dira.

Irujo gaineratu duenez, proiektu hau "desindustrializazioak asko kaltetu duen eremu bat,



bultzada teknologiko eta zientifikoaren bidez, suspertzearen aldeko apustua da". "Agoitzen eremua suspertzeko beharra dago, ahal bada ezagutzari lotutako industriaren bidez. Eta proiektu honek bi helburuak betetzen ditu, CENERek Agoitzen duen egoitzan eginen baita", azpimarratu zuen.

Ángel Martín Unzué oso positibotzat jo zuen Europako funtsen helmuga Agoizko lantegi batean egotea eta plantilla bikoitza izatea. "Kualifikazio handia behar bada ere, inguruko jendeari emanen zaio lehen tasuna", adierazi zuen alkateak.

INDUSTRIALDEA BERPIZTEKO PROPOSAMENAK

Iruñeko Bideko Ama Birjina Zentroko 18 eta 29 urte bitarteko zazpi ikaslek Agoizko industrialdea dinamizatze eta berpizteko proposamenak egin dituzte, "Solano bizirik" izeneko proiektua aurkeztuz. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegua aktibatze 'Giltza' programaren seigarren edizioaren barruan garatu da, Hezkuntza Departamentuarekin, Cederna Garalurrekin, Agoizko Udalarekin eta Aralar Elkartearekin (substantziarik gabeko mendekotasunen kolektiboekin lan egiten du) elkarlanean, eta Enplegua Fundazioak gauzatu du.

Egin duten proiektua bi zati ditu. Alde bate-tik, planoen gainean egindako proposamen bat, hainbat industria-profil espazio mugagarririk eskaintzeko, eta teknologia berriarekin egokitutako nabe jasangarri bat. Beste zatia kontzeptu-mailakoa da, izen, logo eta eslogan bat diseinatu da eta komunikazio-kanalak zehaztu dira. Era berean, substantziarik gabeko adikzioak dituzten kolektiboak integratu nahi



dira, ontziaren zati bat kudeatu ahal izan dezaten eta ekintzaileekin elkarrekin ahal izan dezaten. Ideia hori Nasuvinsara eraman da,

Solanoko antzinako nabeetan proiektatu nahi diren habia-ontzien sorkuntzan aztertu eta garatu ahal izateko.

ENERGIA JASANGARRIRAKO EKINTZA PLANAK PRESTATZEN HASI DIRA NAFARROAN

Nafarroako Gobernuak konpromiso irmoa du klimarekin, Europako helburuekin bat etorritik, bere tokiko plangintzaren bidez. Toki-administrazioaren inplikazio hori «Life-IP NAdapta-CC» Europako proiektuan gauzatzen da. Testuinguru horretan, Lursarea-Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Nafarroako Agentziaren bidez, Nasuvinsaren unitate teknikoak eta «factor ideas for change» delakoarekin batera, Klimaren eta Energiaren Alkatetzen Itunari atxikitako Nafarroako udalerrien Klimarako eta

Energia Jasangarrirako Ekintza Planak (PACES) egin dira.

Lan honen helburu nagusia 2020-2030 epean Itunari atxikitako 154 udalerriren PACEak egitea da, eta horien artean dago Agoitz. Udalerri bakoitzaren azterketaren bidez, Europar Batasunak 2030erako ezarritako helburuak betetzen lagunduko duten zenbait neurri landu eta aztertuko dira: sektore hauetan CO₂ isurketak gutxienez % 40 murriztea:

- Udala: eraikinak, ekipamendua eta instalazioak, argiteria publikoa eta udal ibilgailuak.
- Bizilekuak: etxebizitza, batez ere.
- Etxeko hondakinak.
- Garraioa (Iruñerrian).

Ekimen honek parte-hartze sozialeko prozesu garrantzitsu bat barne hartzen du lurraldean. Izan ere, Itunaren erabakiek eta konpromisoek udaletako teknikarien eta politikarien eta herritarren ekarpenak jaso beharko dituzte.

BIODIBERTSITATEAREN ALDE

Mantenamendu txikiko belardi eta lorategiak errealitate bilakatu dira hiri askotan. Gero eta gehiago ezartzen ari dira hiri eremuetan, ur kontsumoa gutxi behar dutelako eta biodibertsitatea ahalbidetzen dutelako.

Agoitzen, parke eta beste eremu batzuen artean, 35.000 m² inguru berdegune ditugu. Beraxitoko parkean 15.000 m²-ko erreindako zelai eremu bat dago, ohiko belardia ez dena. Duela 15 bat urte osatu zen, eta ez dago ureztatze-sistemarik instalatuta. Zorua nahiko irregularrak du eta, beraz, mantentze-lanak garestiagoak dira. Aurrean, bideen eta aisialdirako elementuen ondoko belarra moztea erabaki da, eta gainerako eremua moztu gabe utziko da ekainaren amaierara arte, intereseko eta balio ekologiko handiko landareak hazi daitezzen. Udaberrian belarra ez mozteak orkideak



(landare munduko lorerik garatuenetakoak) bezalako espezieak garatzen uzten du. Orkideez gain, beste lore eta belar espezie interesgarri batzuk ateratzen ere ikusiko dugu; horiek, kolorea edo sendagai bezala erabiltzeko interesgarriak izateaz gain, intsektuei eta txoriei jaten ematen diete umatze-garaian.

Azken batean, naturalizatutako belardi bat balorean jartzea da helburua, eta ingurumenaren eta paisaiaren ikuspegitik dakartzan onurak kontuan hartzea. Ekainaren amaieran, landareek beren bizi-zikloa amaitu eta belarrak gorrituta, eremu osoa moztu zen.

Agoizko Udaleko Ondare eta Ingurumen Arloa jarduteko modu desberdin bat dela ulertuko delakoan dago, eta ez, aldiz, parkea utzita dagoela.

EMAKUMEEN AURKAKO BORTIZKERIAREN KONTRA ARITZEKO PROTOKOLOA

Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak "emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko I. koordinazio-protokoloa" garatu du bertako udalerrri eta bailaretan. Protokolo honen helburua da emakumeen (eta adin txikikoen) aurkako indarkeria-kasuetan ahalik eta modu koordinatuenean, espezializatuean, integralenean eta kalitatezkoan esku hartzea bermatzea, lurraldean presentzia duten erakunde eta eragile guztietatik, genero-ikuspegian eta giza eskubideetan oinarrituta.

Protokolo honen diseinuaren oinarria da emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan esku-hartze politikoa eta Mankomunitateko zerbitzuetako teknikariena bideratu behar direla, helburu jakin batzuei erantzuteko:

- Esku-hartzea protokolizatzea.
- Estrategiak eta tresnak homogeneizatzea.
- Esku hartzeko eredu komuna eta ikuspegi

"BORTXAKETAREN KULTURA"-RI BURUZKO TAILERRA

Agoizko Udaleko berdintasun-arloak antolatuta, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin lankidetzan, Rut Iturbide Rodrigo genero eta emakumeen aurkako indarkerian adituak tailer interesgarri bat eman zuen 15 eta 17 urte bitarteko neskenentzat. Tailer horretan, hainbat estrategia eta alternatiba azaldu ziren bortxaketaren kultura eraldatzeko.

"Bortxaketaren kultura" terminoa nahiko berria da, eta gizarteak biktimei errua botatzeko eta sexu-indarkeria normalizatzeko moduak deskribatzeko sortu zen. Emakumei edo haurrei egindako sexu-abusuetan, isilean gordezea edo beste alde batera begiratzea, salatu edo minimizatu gabe. Indarkeria jakin bat sexy ikusten da, eta sexualitatea indarkeriatik oso gertu dagoen zerbaitekin nahasten da. Bortxaketaren kultura arlo asko hartzen ditu: te-
lebisita, txantxak, publizitate-iragarkiak, legeak, lan-mundua edo pornografia mota jakin bat.



bera eraikitzea.

Protokolo hori taxutzeko, hainbat lan-saio egin dira politikariekin, teknikariekin eta gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta kirol-arloko hainbat erakunderekin. Indarkeria jasan duten eta bizi-

rik atera diren emakumei ere hainbat elkarrizketa egin zaizkie, baita adingabeei ere, horiek funtsezkoak baitzira jarduketako protokolizatzeke.

Ikerketa taldea IPES Elkarteke Rut Iturbidek zuzendu eta koordinatu du.

buruari galdetu beharko lioke zein mekanismo, praktika, ideologia edo erakundek elikatzen dituen, biktimak zalantzan jarri edo erruduntzat jo beharrean.



Baina galarazteko mekanismoak badaude, eta tailerrean horietako batzuk zehaztu ziren. Oinarritzeko da adostasunean hezte eta sakoneko arrazoiak salatzea. Gaur egungo gizartearen, ezinbestekoa da maskulinitatearen kontzeptua birdefinitzea eta errua biktimei leporatzeari uztea. Guztiok zero tolerantzia erakutsi behar dugu eta zigorgabetasunari amaiera eman. Eta funtsezkoa da biktimen aldeko legeak egitea.

Horrela bakarrik gelditu ahal izanen dugu "bortxaketaren kultura" hori; izan ere, abusatzaileak sortzen dituen gizarte batek bere

LGTBI KOLEKTIBOAREN ESKUBIDEEN ALDE

